



Haurrak ala imigrante, errefuxiatu eta arrazializatuak

Azken urteotan eta Euskaraldiaren eskutik, hizkuntzak nola indartu eta erabilpena zabalduko duen estrategia topatu du azkenik. Biba asmatzailea eta zabaltzea lortu duten lagun guztiak. Euskararen harira eta imigrante, errefuxiatu eta arrazializatuaz ari garenean, bazez eta oraindik badabil zaratatxo bat esanez, guzti hauek direla euskararentzako arriskua edo itxaropena ... bere gain jarriz hizkuntzaren ardura guzia.

Guztiz erratatutako planteamendu dela uste dugu. Hemen jaio eta bizi diren pertsona askok ez dute euskara ikasi eta erabiltzen. Eta hori ikus daiteke erakunde publikoetako kargudunetan, alderdi politikoetan, kazetari, enpresa buru, intelektual, irakasle, sendagile, askotariko langile Jendarteko arlo guzietan. Guk, hizkuntza pertsona hauek bertakotzeko giltzetako bat dela uste dugu, ez horren kargu hartu behar duten betebeharrak. Etorri berriek baino, bere seme alabek erabiliko duten hizkuntzetako bat izango dela euskara. Historian zehar esperientzia hori izan dugu estatuko beste herrietatik etorri diren lagunekin.

Eta haurrei dagokionez, beldur gara ez ote diegun guraso hauei behar bezala azaltzen ze garrantzi duen euren seme alabak euskaraz heztea. Ez ote diegun azkenik ezkututzen, horrek ahalbidetuko diela bertakotzea eta lan aukera guzietara sarbidea. Euren etorkizuna baldintza dezakeela. Ez dugulako benetan uste gure aukera berdina izatea merezi dutenik. Beldur gara aplikatzen diren hezkuntza politikek oraindik ez dutela betetzen bere zeregina, ez dutela hezkuntzan behar diren baliabide guztiak jartzen, haur hauen eta guztien beharrei erantzun egokia emateko.

Beldur gara eskoletan oraindik haur hauenganako aurreiritzietan oinarriturik lan egiten dela. Haur iritsi berriak edo bertan jaiotakoak, maiz 'bestekotu', exotizatzen ditugula. Askotan eta baliabide falta eta bakoitzaren arrazakeria barneratua dela eta, ez ote ditugun gutxiesten. Iritsi berriak badira, ez dugula ezer esperoko haur hauengandik eta hala tratatuko ditugula. Pigmalion efektuaren alde perbertsioena. Ez dut zutaz ezer espero eta hala erakutsiko dizut, beraz ezer ez ematera ohituko zara, porrotaren gorpil-zoroan sartuz.

Beti izan da anitza jendartea. Beti izan dira anitzak gure eskoletako gelak. Baina ez ditugu pertsona horiek ikusi eta onartu nahi izan eta homogeneousatu egin ditugu, horrek dakarren galerarekin, pertsona bakoitza eta gizarte osoarentzat. Imigrante, errefuxiatu eta arrazializatuak aniztasun hau azaleratu eta ikusgarriago egin dute. Besterik ez.

Hizkuntza hauentzako, guztientzako aukera bat bezala ikusten dugu. Jarraipena guztien eskutan dago. Erakunde publikoetatik hasi, eskola, komunikabide, hezitzaile eta gizartea egiten dugun oroengan.

Zorionez, ezagutzen ditugu beste modu batean lan egiten dute eskola eta irakasleak. Berdintasuna, errekonozimendua, feminismoa eta antiarrazismotik lan egiten dutenak. Baina gehiago behar ditugu. Eta ezagutzen ditugu haur euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak. Haur horiek helduak ere izango dira. Eta irrikatan gaude hizkuntza eta jendartera begirada, bizipen eta istorio berriak ekarriko dituzten idazleak, abeslariak, poetak, bertsolariak, irakasleak, politikariak, kazetariak... Jadanik ezagutzen ditugu batzuk. Gehiago etorriko dira. Guztion zorionerako.